

Urdaibai Biosfera Erreserbaren kontserbazioaren aldeko sinadurak

- **SEO/BirdLife-k eta Guggenheim Urdaibai Stop herri plataformak nazioarteko sinadura bilketa bati hasiera eman diote *Salomon R. Guggenheim Foundation*-i eskatzeko uko egin diezaiola Urdaibai Biosfera Erreserbaren suntsiketari**
- **Helburua 1.300.000 sinadura lortzea da, Guggenheim Bilboko museoaren urteko bisitari-kopurua adierazten duen zifra sinboliko gisa**

Gernika/Madril, 2024/07/15.- EAEko erakundeek Urdaibai Biosfera Erreserban Guggenheim museoaren frankizia berri bat inposatu nahi dute behin eta berriz, haren beharra justifikatzen duen argudiorik gabe eta tokiko biztanleen parte-hartzerik gabe. Hori dela eta, SEO/BirdLife-k eta Guggenheim Urdaibai Stop herri plataformak nazioarteko sinadura bilketa bati hasiera eman diote *Salomon R. Guggenheim Foundation*-i eskatzeko uko egin diezaiola Urdaibai Biosfera Erreserbaren suntsiketari.

Urdaibai Biosfera Erreserba berez museo bizi da, dibertsitate biologikoaz, kulturaz eta historiaz beterik dagoen paisaia ikusgarriekin. Bi egoitzak eraikitzearen aldeko apustua, horietako bat estuarioaren bihotzean bertan, mehatxu bat da, eta inpaktu kritiko eta itzulezinak sortuko ditu erreserbaren balioentzat, turismoak dagoeneko gainezka egin duen eskualde batetan.

Urdaibaiko Erreserbako estuarioa Hegaztien Kontserbaziorako Eremu Garrantzitsutzat (IBA) izendatuta egoteaz gain, Europako Natura 2000 sarean, RAMSAR konbentzioan eta UNESCOren Biosfera Erreserban nazioarteko maila goreneko babes figurek (Hegaztientzako Kontserbazio bereziko eremua (HBBE) eta Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE)) aintzatesten dute. Bertan pinakotekaren egoitza bat ezarri eta milaka turista oinezko bidezidor "ekologiko" baten bidez bideratzea, egin bahi den bezala, ez dirudi Autonomia Erkidegoko, Estatuko edo nazioarteko araudiek eskatzen dituzten kontserbazio-helburuak betetzen direla bermatzeko aukerarik onena denik. Izan ere, jolas-jarduerak presio handia eragiten diete paduran babesa eta janaria bilatzen duten hegazti-espezieei.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak behin eta berriz ahaztu dute eremu babestu horren helburua, hau da, espezieen eta bertan dauden habitaten kontserbazio-egoera onari eustea eta, aldi berean, eskualdearen garapen iraunkor eta ordenatuarekin bateragarri egitea. Kontserbatzea, zaintzea eta errestituzioa da premisa, hauskortasun handiko eremuen erabilera publiko masifikatua behin eta berriz erraztu beharrean. Tokiko biztanleek partekatzen dituzten eta parte hartzen duten alternatibak bilatzea da Europako araudiak markatzen duen bidea, eta hemen erabakitasun osoz alboratzen da.

SEO/BirdLifek eta Guggenheim Urdaibai Stop herri plataformak *Salomon R. Guggenheim Foundation*-i helarazi nahi diote herritarrok edertasun eta hauskortasun handiko eremu babestu honen eraldaketa atzeraezina aurka daudela, proiektu hau hain espazio baliotsuan ezartzeari uko eginez eskatuz, ingurumenaren, kulturaren eta gizartearen ikuspegitik.

Sinatu ezazu:

<https://seoactua.org/peticion/urdaibai-bosfera-erreserba>

<https://seoactua.org/peticion/urdaibai-biosphere-reserve>

<https://seoactua.org/peticion/reserva-urdaibai>

